

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZUIAKO UDALA

2020. urteko hainbat esparrutako diru-laguntzen deialdia

Udalbatzak ondorengoa erabaki zuen 2020ko ekainaren 11n izandako osoko bilkuran:

– Ondoko kolektiboei eta helburuetara zuzendutako 2020ko ekitaldiko diru-laguntzen deialdia eta horiek arautzen dituzten oinarriak onartzea: udalerriko kontzejuei; menpekotasun egoeran edo horren ebaluazio prozesuan dauden pertsonak edo ehuneko 65eko edo hortik gorako menpekotasun maila duten pertsonak etxean zaintzeko langileak kontratatzeko; familiei, COVID-19ren pandemiak sortutako beharrak arintzeko; beren jarduera Zuian garatzen duten autonomo, enpresa eta elkarteei, COVID-19k eragindako krisi ekonomiko eta sozialak kaltetu baditu.

– Aipatu diru-laguntzak 2020ko gastuen aurrekontuko honako partida hauen kargura ordaintzea: 134.434.000, 165.434.000, 338.434.000, 943.434.000, 943.734.000, 943.734.010, 163.227.011, 410.227.011 (kontzejuak), 231.480.090 (menpekotasuna duten pertsonak, ezgaituak, zaintzeko langileen kontratazioa), 231.480.020 (familiei zuzendutako laguntzak) y 439.471.010, 439.471.020 y 439.471.030 (autonomo, enpresa eta elkarteei zuzendutako diru-laguntzak).

– Deialdi horiek ALHAOn argitaratzea.

Erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahalko da, bi hilabeteko epearen buruan, argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako txandagatik dagokion Epaitegian.

Dena den, nahi izanez gero eta aurreko paragrafoan adierazitako administrazioarekiko auzi errekurtsoaren aurretik, berraztertze errekurtsoa jarri ahalko da argitaratutako erabaki honen aurka berori eman zuen organoaren aurrean hilabeteko epearen buruan, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Murgian, 2020ko uztailaren 6an

Alkate-udalburua

UNAI GUTIERREZ URKIZA

**ZUIAKO UDALERRIAN, MENDEKOTASUN EGOERA AITORTUAN DAUDEN EDO
EHUNEKO65EKO EDO HORTIK GORAKO EZGAITASUN MAILA DUTEN PERTSONAK, EDO
HORRETARAKO IZAPIDEAK EGITEN ARI DIRENAK, ETXEAN ZAINTEKO LANGILEEN
KONTRATAZIORAKO LAGUNTZAK EMATEA EZARTZEN DUTEN OINARRIAK**

1. artikulua. Xedea

Deialdi honen helburua da menpekotasun egoera aitortuan edo horren ebaluazio prozesuan dauden pertsonak zein ehuneko 65eko edo hortik gorako ezgaitasun maila duten pertsonak euren etxeetan zaintzeko langileen kontratazioaren ondoriozko 2020 osoko gastuak ordaintzen laguntzea. Laguntzak norgehiagoka araubidean emango dira, eta Zuiako Udalaren plan estrategikoan xedatutakoa gauzatzeko.

2. artikulua. Onuradunak

Zuian erroldatuta dauden pertsonak izan ahalko dira laguntza hauen onuradunak, baldin eta, menpekotasun egoera aitortuan edo horren ebaluazio prozesuan egonda, zein ehuneko 65eko edo hortik gorako ezgaitasun maila egiaztatua izanda, hirugarren pertsona edo erakunde bat kontratatzen badute, bere etxean behar dituen oinarrizko zaintzen zati bat jasotzeko, eta oinarri hauen 3. ataleko eskakizunak betetzen badituzte.

3. artikulua. Onuradunen eskakizunak

1. Eskaera aurkezten den egunean, Zuiako udalerrian erroldatuta egotea eta bertan erroldatuta egoten jarraitzea diru-laguntza jasotzen den denbora osoan, genero indarkeriaren biktima izaera duten pertsonak salbu, segurtasun arrazoiengatik eta izaera hori genero indarkeriaren aurkako oso-osoko babesa emateko neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 23. artikuluan ezarritakoari jarraituz egiaztatzen badute.

2. Etxean edo familia ingurunean zaintzak jasotzea, erakunde edo pertsona fisiko batekin legez ezarritako kontratu baten bitartez.

3. Udal gizarte zerbitzuei menpekotasun egoeran dagoen pertsonaren etxebizitzan sartzen uztea, baldintzak betetzen direla edo zirkunstantziak aldatu direla egiaztatzeko.

4. Zuiako udalaren zein administrazio batzordeen zerga, tasa eta zigorren ordainketak egunean izatea.

5. Zaintzak jasotzen dituen pertsonaren familia unitateak 3.000 eurotik gorako eta 30.000 eurotik beherako diru sarrera haztatuak jaso beharko ditu.

Sarrerak haztatzeko honako hauek izango dira kontuan: sarrera konputagarriak, bizikidetzaren unitateko pertsona kopura, hala badagokio, eta sarrerak dituzten bizikidetzaren unitateko kide kopurua.

Aipatu 38/2008 Dekretuaren 21. artikuluan zehaztutakoak dira sarrera konputagarriak.

– EAEn Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortzea aurkeztu behar izan dutenek eta beharrik izan ez arren, aurkeztu dutenek, dagokion PFEZ aitortzen edo aitortzen oinarri ezargarri orokorrak eta aurrezkikoak eta laneko etekinei ezarritako hobariak zenbatuko dira. Eta dagokionean, baita salbuetsitako errentak ere.

– Errentaren gaineko zergen aitortzea EAEn aurkezteko betebeharrak ez duten pertsonen kasuan, sarrera hauek zenbatuko dira: a) Lan etekinei eta langabezia prestazioei dagokienez, kontzeptu guztietan egiaztatutako sarrera gordinen ehuneko 95; eta b) Pentsioei eta langabezia sorospenei eta halaber zergarik gabeko dietei dagokienez, kontzeptu guztietan egiaztatutako diru sarrera gordinen ehuneko 100.

Diru-sarrerak haztatzeko, formula hau erabiliko da:

$DH = DK \times N \times A$, honako hauek izanik.

DH: DH: diru-sarrera haztatuen zenbatekoa.

DK: diru-sarrera konputagarriak.

N: haztapan koefizientea, familia unitateko kide kopuruaren arabera.

A: haztapan koefizientea, diru-sarreraren ehuneko 20 gutxienez irabazten duten familia unitateko kideen kopuruaren arabera.

| N= PERTSONA KOPURUA | A= HARTZAILE KOPURUA |
|---------------------|-------------------------------|
| 1 pertsona: 1,00 | 1 hartzaile: 1,00 |
| 2 pertsona: 0,95 | 2 hartzaile: 0,90 |
| 3 pertsona: 0,90 | 3 hartzaile edo gehiago: 0,85 |
| 4 pertsona: 0,85 | |
| 5 pertsona: 0,80 | |
| 6 pertsona: 0,75 | |
| 7 pertsona: 0,70 | |

4. artikulua. Enpresa edo pertsona laguntzailearen eskakizunak

Hona laguntzaile pertsonal gisa diharduen pertsonari aplikatzeko baldintzak:

1. Adin nagusikoa izatea.

2. Zerbitzuak ematen dituen eta behar bezala homologatuta eta baimenduta dagoen enpresarekin formalizatutako kontratu baten bitartez ematea zerbitzuak, edo bestela, zuzenean laneko edota zerbitzuak emateko kontratu baten bitartez.

3. Gizarte Segurantzako afiliazio, alta eta kotizazio baldintzak betetzea.

4. Onuradunaren ezkontidea, eta/edo odol, ezkontza edo adopzio ahaidetasunezko hiru-garren mailara arteko ahaidea ez izatea, eta familia harreraren ondoriozko loturarik ez izatea.

5. artikulua. Onuradunen betebeharrak

Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 14. artikuluan eta Zuiako Udalaren diru-laguntzak ematea arautzen duen ordenantzaren 6. artikuluan ezarritakoaz gainera, honako hauek ere badira onuradunaren betebeharrak:

– Diru-laguntza zertarako eman den, horrexetarako erabiltzea.

– Zuiako Udalari eskatzen zaien informazio osagarri guztia eman behar diote.

– Diru-laguntza emateko kontuan hartu den edozein baldintza subjektibo zein objektibo aldatu bada, udalari eman beharko zaio aldaketaren berri.

6. artikulua. Eskabideak aurkeztea: epea eta modua

Laguntza horiek jaso nahi dituztenek eskabidea beteta aurkeztu beharko dute udal bulegoetan, ALHAOn argitaratzen den egunaren ondorengo 2 hilabeteen buruan.

1. Eskaera inprimakia, behar bezala beteta eta sinatuta.

2. Laguntzaren eskatzailearen indarreko NANaren edo egoitza txartelaren, edo pasaportearen fotokopia.

3. Enpesakerekin edo zaintzailearekin ezarritako kontratuaren kopia, indarrean dagoena eta, gutxienez ere, diruz laguntzeko epearen zati bat hartzen duena.

4. Kontuaren titulartasuna egiaztatzen duen dokumentua.

5. Erakunde eskudunak emandako menpekotasun edo ezgaitasun egoeraren aitortpena edo mediku txostena eta laguntza pertsonala behar izatearen balorazioa, betiere, izapideak abian badira.

6. Zerga eta gizarte segurantzarekiko betebeharrak administrazioaren aurrean egunean izatea egiaztatzen duen agiria.

7. Zinpeko adierazpena, egiaztatzen duena eskatzaileak ez duela oro har diru-laguntzak jasotzeko inolako eragozpenik eta, zehazki, oinarri hauen onuradun berezien eskakizunak betetzen dituela.

8. Hala badagokio, genero indarkeriaren biktima izatearen ziurtagiria; egoera hori genero indarkeriaren aurkako oso-osoko babesa emateko neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 23. artikuluan aurreikusitako edozein moduren bitartez egiaztatu beharko da (dagokion epaiaren, biktimaren aldeko babes aginduaren, eta abarren bitartez).

9. PFEZ aitortpena dela-eta:

a. PFEZ aitortu behar duenak edo aitortu duenak, honako hauek egiaztatu beharko ditu:

– Eskabidea aurkezteko unean, igaro den azken zerga ekitaldiko pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren inguruan aurkeztutako aitortpenaren fotokopia, orijinalarekin batera, erkaketa egiteko.

– Gainera, halakorik jasotzen bada, laguntzako prestazioen ziurtagiria.

b. PFEZ aitortu behar ez duenak eta aitortpena aurkeztu ez duenak honako hauek egiaztatu beharko ditu:

– Ekitaldi horretan PFEZren aitortpena aurkezteko beharrik ez duela egiaztatzen duen foru ogasunaren egiaztagiria (eskabidea aurkezteko unean, igaro den azken zerga ekitaldia).

– Pentsioa edo edozein beka, prestazio edo laguntza jasotzen dutenen kasuan (Gizarte Ongizatearen laguntzak barne), haien ziurtagiria, ekitaldi horretakoa.

10. Zinpeko adierazpena; bertan jaso behar da, hala badagokio, beste diru sarrera batzuk badaudela (zenbatekoa zehaztu behar da), edota beste erakunde batzuei eginiko diru-laguntzen eskabideak.

11. Laguntza emateko eskakizunak kontuan hartuta egon daitekeen bestelako dokumentazioa.

Eskatzaileek berariaz baimendu beharko dituzte Zuiako Udaleko udal zerbitzuak organo eskudunei laguntzen onuradun izateko eskatzen diren baldintza guztiak betetzen direla egiaztatzeko behar diren datuak eskatzeko, Datu Pertsonalak Babesteko indarrean dagoen araudian ezarritakoari jarraikiz.

7. artikulua. Hutsak zuzentzea

Aurkeztutako eskabidea edo erantsitako dokumentazioa osorik ez badaude edo konpondu daitekeen beste hutsik badute, eskatzaileari eskatuko zaio hutsa zuzentzeko, gehienez hamar egun baliioduneko epean, errekerimendua jakinarazi eta biharamunetik zenbatzen hasita, eta adieraziko zaio, hala egin ezean, eskabideari uko egingo zaiola, eta hura izapiderik gabe artxibatuko dela.

Diru-laguntza ematea

8. artikulua. Laguntzen zenbatekoa

Diru-laguntzaren zenbatekoa hileko errenta konpungarriaren ehunekoa oinarri hartuta ezartzen da; gehienez eskabide bakoitzeko euro kopurua/hilabetea ezarriko da, gehienez 12 hileroko eperako, diru sarreren eta lanaldiaren iraupenaren arabera. Diruz lagundu daitekeen gehieneko aldia zehazteko, dagokion kontratuaren data hartuko da kontuan.

Diru-laguntzaren zenbatekoa ezarritako tarte sistema batean ezartzen da, eskatzaileek egiaztatutako urteko diru sarrera haztatuen arabera, eta tarte bakoitzari ehuneko bat esleituko zaio.

Tarteen sistema

| DIRU SARRERA HAZTATUAK | LANALDIA: | DIRU-LAGUNTZA |
|---------------------------------|-------------|---------------|
| 3.000,00 euro - 15.000,00 euro | ehuneko 50 | 175 euro |
| | ehuneko 100 | 350 euro |
| 15.000,01 euro - 19.000,00 euro | ehuneko 50 | 150 euro |
| | ehuneko 100 | 300 euro |
| 19.000,01 euro - 24.000,00 euro | ehuneko 50 | 100 euro |
| | ehuneko 100 | 200 euro |
| 24.000,01 euro - 30.000,00 euro | ehuneko 50 | 75 euro |
| | ehuneko 100 | 150 euro |

Ehuneko 100 edo ehuneko 50eko lanalditzat joko da indarrean dagoen lan araudiak ezarritakoa. Lanaldiaren bitarteko tarteetarako, laguntza proportzionala kalkulatu da.

Emango diren diru-laguntzen zenbatekoak, guztira, dagokion aurrekontu partidan gordailututako kopurua gainditzen badu, udalak hura hainbanatu dezake, 3.000 eta 15.000 euro bitarteko diru sarreren tarteari ez dagozkion eskabideen artean.

9. artikulua. Laguntzak ordaintzea

Aitortutako diru-laguntza pertsonala da.

Diru-laguntza zatika ordainduko da, bi ordainketatan:

– Lehenengo ordainketa deialdia ebatzi ondoren egingo da. Lehen ordainketaren zenbatekoa proportzionala izango da egun horretara arte justifikatu diren nominen gastuekin.

– Bigarren ordainketa, diru-laguntzaren gainerakoari dagokiona, frogagiriak osorik aurkeztu ondoren egingo da, oinarri arautzaileen 10. artikuluan adierazten den bezala.

10. artikulua. Frogagiriak eta aurkezteko epea

Oro har, oinarri hauen helburu diren diru-laguntzak justifikatzeko ondorengo dokumentazioa aurkeztu beharko da, 2020ko abenduaren 28a baino lehen:

a) Zaintza kontratuari dagozkion nominen ordainagiriak.

b) Zerga eta gizarte segurantzarekiko betebeharrak administrazioaren aurrean egunean izatea egiaztatzen duen agiria.

c) Beste edozein administrazio, erakunde edo entitate publikotatik helburu bererako beste diru-laguntza edo laguntza batzuk eskuratu diren ala ez dioen zinpeko deklarazioa. Beste diru-laguntzaren bat eskuratu bada, lortutako zenbatekoa eta administrazio emailea adierazi eta datu horien egiazkotasuna ziurtatzen duen agiria aurkeztu beharko da.

11. artikulua. Onuradunen betebeharrak

Diru-laguntzen onuradunek ordenantzaren 3. artikuluan oro har aurreikusitako estipulazioak bete beharko dituzte eta, zehazki:

1. Zerga eta gizarte segurantzarekiko betebeharrak egunean izan beharko dituzte eta ez dira Zuiako Udaleko eta administrazio batzordeetako zordun izango.

2. Diru-laguntza ematen duen organoak, hala badagokio, egingo dituen egiaztapen jarduketak beteko dituzte, eta, horretarako, aurreko jarduketan ekitaldian eskatutako informazioa eta dokumentazioa aurkeztuko dute. Udal zerbitzuak etxebizitzara joan ahalko dira eta ikuskatu, bai eta udalaren datu baseak kontsultatu ere, oinarrietan ezarritako eskakizunak betetzen direla egiaztatzeko baino ez.

3. Laguntzen onuradunek, prozeduraren izapidetzean, eta laguntza eman denean, aitorten hori egitea ekarri zuten baldintzetan egon den edozein aldaketa eta laguntzarako eskubidea bat-batean galtzea ekar dezakeena jakinarazi beharko dute.

4. Laguntzen onuradunek lan kontratuan izandako edozein aldaketa jakinarazi beharko dute, gehienez hamar eguneko epean.

Betebehar horietako bat bete ezean, nahikoa izango da laguntza ezeztatzeko espedientea hasteko eta behar ez bezala kobratu diren kopuruak bueltatu behar izateko.

12. artikulua. Beste laguntza batzuekiko bateragarritasuna

Oinarri hauen arabera emandako laguntzak bateragarriak izango dira helburu bererako emandako beste laguntza batzuekin.

13. artikulua. Finantzaketa

Deialdi honen xede diren laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoak horretarako Zuiako Udalaren aurrekontu orokorretan gordailututako aurrekontu kredituetatik etorriko dira. Horretarako, 16.000 euroko 231.480.090 partida erabili ahal izango du udalak laguntzak emateko eta horiek ezingo dute Zuiako Udalak horretara bideratutako zenbatekoa gainditu.

Prozedura

14. artikulua. Balorazio irizpideak

Laguntzak emateko oinarriko irizpideak oinarri hauen 3., 4. eta 5. artikuluetan zehazten dira.

Baldintza eta eskakizunak betetzen direla egiaztatu ondoren, laguntzak emango dira, ordenantza honetan ezarritako baldintzetan.

15. artikulua. Prozedura

a) Jarraibideak eta proposamena:

1. Zuiako Udaleko laguntzak kudeatzeko batzorde arduradunari dagokio deialdi honetan aurreikusitako laguntzak bideratzeko lanak egitea. Eskabideak dagokion batzordean aztertu eta ebaluatuko dira, eta, irizpen baten bidez, ebazpen proposamena egingo zaio organo eskudunari.

2. Behin-behineko jakinarazpena egingo zaie interesdunei, iragarki oholaren eta Zuiako Udalaren web orrialdearen bidez, eta, horretarako, hamar eguneko epea emango da, alegazioak aurkezteko.

3. Aurkeztutako alegazioak aztertu ondoren, behin betiko ebazpen proposamena egingo da, eta, bertan, diru-laguntzaren onuradun izango diren eskatzaileen zerrenda eta diru-laguntzaren zenbatekoa zehaztuko dira. Diru-laguntza baldintzak bete dituzten guztien artean banatuko da; beraz, behin-behineko zerrenden ebazpenaren aurrean aurkeztutako alegazioak onartzen badira, aldaketak egon daitezke behin betiko zerrendetako kopuruetan.

b) Ebazpena:

1. Behin betiko ebazpen proposamena onetsi ondoren, alkatetzak prozedura ebatziko du, oinarriek ezartzen dutenarekin bat datorren ebazpen arrazoituaren bidez, eta egiaztatuta geratu beharko dira prozeduran ebazpenaren oinarriak.
2. Ebazpenak berariaz jaso beharko du gainerako eskabideen ezespena.
3. Ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea bi hilabetekoa izango da, deialdia argitaratzen den egunetik aurrera zenbatzen hasita. Aipatutako epe horretan ebazpenik egon ezean, aurkeztutako eskabidea ezetsi egingo da.
4. Ebazpenean diru-laguntzaren zenbatekoa eta ordainbidea jasoko dira.

Diru-laguntzaren kontrola

16. artikulua

Zuiako Udalak onuradunei egoki irizten dituen dokumentuak aurkezteko eskatu ahalko die.

Udal zerbitzuak etxebizitzara joan ahalko dira eta ikuskatu, bai eta udalaren datu baseak kontsultatu ere, oinarrietan ezarritako eskakizunak betetzen direla egiaztatzeko baino ez.

Laguntzen onuradunek Zuiako Udalak beren fiskalizazio zereginetan duen eskumenaren arabera eskatzen dien informazio guztia emango diote.

Publizitatea

17. artikulua

Emandako diru-laguntzen zerrenda, onuradunak eta zenbatekoak aipatuko direla, bertako iragarki taulan argitaratuko dira.

Ez dira argitaratuko diru-laguntzak horien argitalpena, diru-laguntzaren helburua kontuan hartuta, pertsona fisikoen ohorearen errespetuaren eta babesaren, intimitate pertsonalaren eta familiarraren aurkakoa izan daitekeenean eta hala jasotzen denean diru-laguntza horren oinarri arautzaileetan.

Oinarriak interpretatzea

18. artikulua

Oinarri hauek interpretatzeko orduan zalantzarik egonez gero, Zuiako Udalaren batzorde eskudunak ebatziko du.

Errekurtsoak

19. artikulua. Errekurtsoak

Oinarri hauen aurka, hilabeteko epean, berraztertzeko errekurtsua aurkeztu ahalko da, deialdia onetsi duen organo eskudunaren aurrean, edo aurkaratu ahalko da zuzenean, bi hilabeteko epean, administrazioarekiko auzien epaitegian. Epeak, bi kasuetan, oinarri hauek argitaratu eta biharamunetik hasita zenbatuko dira.

**ZUIAKO FAMILIEI DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO DEIALDIA ARAUTZEN DUTEN
OINARRIAK, COVID-19K ERAGINDAKO ALARMA EGOERAREN ONDORIOZKO
KRISI SOZIAL ETA EKONOMIKOARI AURRE EGITEN LAGUNTZE ALDERA**

1. Xedea

Diru-laguntzen deialdi honen xedea da Zuian erroldatutako familiei diru-laguntzak ematea, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua eta martxoaren 31ko 10/2020 Errege Lege Dekretua ezartzearen ondorioz diru sarrerarik gabe edo sarrera txikiagorekin geratzeak eragindako beharrei aurre egiteko.

Krisi ekonomiko eta sozial larri hau da Zuiako Udalak laguntza hauek premiazko neurri gisa jartzeko arrazoia, baliabide ekonomiko gutxien dituzten familiei laguntze aldera, eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17. artikulua babespian.

2. Onuradunak

Laguntza hauen onuradun izan daitezke oinarri hauen 3. atalean azaldutako eskakizunak betetzen dituzten eta Zuian erroldatuta dauden familiak.

3. Eskakizunak

Honako hauek dira familiek bete beharreko eskakizunak:

1. Gutxienez 2020ko martxoaren 14aren aurreko, hau da, alarma egoera deklaratu zen egunaren aurreko, bi urteetan Zuian erroldatuta egotea.

2. Familiako kideetako bat gutxienez ABEEE baten eraginpean egon izana edo 2020ko martxoko alarma egoeraren ondorioz langabezian egotea eta egoera hori bere horretan mantentzea edo gutxienez bi hilabetez iraun izana.

3. Familiaren apiril, maiatz eta ekaineko hileko diru sarrera haztatuak ez izatea LGS bider bat eta erdi (1,5) baino handiagoa (1.425 euro).

Sarrerak haztatzeko honako hauek izango dira kontuan: sarrera konputagarriak, familia unitateko pertsona kopura, hala badagokio, eta sarrerak dituzten bizikidetzaren unitateko kide kopurua, ondoren zehazten diren formula eta koefizienteen arabera:

$DH = DK \times N \times A$, honako hauek izanik:

DH: diru sarrera haztatuen zenbatekoa.

DK: diru sarrera konputagarriak: hileko diru sarrerak dira.

N: haztapan koefizientea, familia unitateko kide kopuruaren arabera.

A: haztapan koefizientea, diru sarrerak jasotzen dituzten familia unitateko kideen kopuruaren arabera.

| N= PERTSONA KOPURUA | A= HARTZAILE KOPURUA |
|----------------------------|-------------------------------|
| 1 pertsona: 1,00 | 1 hartzaile: 1,00 |
| 2 pertsona: 0,95 | 2 hartzaile: 0,90 |
| 3 pertsona: 0,90 | 3 hartzaile edo gehiago: 0,85 |
| 4 pertsona: 0,85 | |
| 5 pertsona: 0,80 | |
| 6 pertsona: 0,75 | |

4. Aurrekontu kreditua

Diru-laguntza hauetarako zenbatekoa 2020ko udal aurrekontuko 20.000 eurokoa da, eta 231.480.020 aurrekontu partidaren kargura bideratuko da.

Emango diren diru-laguntzen zenbatekoak, guztira, dagokion aurrekontu partidan gordailututako kopurua gainditzen badu, udalak hura hainbanatuko du proportzionalki eskabide guztien artean.

5. Diru-laguntzen zenbatekoa

200 euro emango dira familia unitateko pertsona bakoitzeko, eta gehienez ere 1.000 euro familiako, ordainketa bakar batean.

6. Dokumentazioa eta eskabideak aurkezteko epea

– Diru-laguntzaren eskabidea ezarritako ereduaren arabera.

– Eskatzailearen NAN eta familia liburua.

– ABEEE edo langabeziaren egiaztagiria.

– Familia unitatean eragindako pertsona guztien diru sarreraren zenbatekoa eta horien gutxitzea frogatzeko beharrezkoak diren agiriak.

– Zerga eta gizarte segurantzarekiko betebeharrak egunean izatearen ziurtagiriak, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua indarrean sartu aurreko hilabete baino gutxiagoko antzintasundunak, udalari horiek eskatzeko baimendu ezean. Era berean, Zuiako toki erakundeekiko eta udalarekiko berarekiko betebeharrak egunean egotearen ziurtagiriak (edo zinpeko adierazpena).

– Eskatzailearen kontu zenbakia.

Eskaerak deialdi hau Arabako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aurrera eta aurtengo abuztuaren 14ra arte aurkeztu ahalko dira.

Eskatzaileek, gehienez, hamar egun izango dituzte atzemandako hutsak zuzentzeko eta, horrelakorik egin ezean, eskabideari uko egin zaiola ulertuko da, besterik gabe, baina behar bezala justifikatutako arrazoiengatik, epea luzatu ahal izango da.

Datu pertsonalak babesteko egungo araudian ezarritakoa betez, honekin zerikusia duen dokumentazioaren bitartez emandako datuak urteko diru-laguntza emateko prozeduran baino ez direla erabiliko ohartarazten zaie pertsonari. Oinarri hauek arautzen dituzte diru-laguntzaren deialdia.

Laguntzaren eskakizun guztiak betetzen direla egiaztatu ahal izateko beharrezko dokumentazioa eskatu ahal izango du udalak.

7. Eskabideak aztertu eta ebaztea

Eskaerak aurkezteko epealdia amaitutakoan, ahalik eta lasterren eta eskabideak aurkezteko epealdia amaitzen denetik hilabeteko epea gainditu ezean, aztertuko dira eta erabakiko da diru-laguntzak ematea edo ukatzea, udalean ordezkatu dauden taldeetako partaide guztiek osatutako informazio batzordearen barruan.

Behin betiko ebazpen proposamena kide anitzeko organoak eta alkateak egingo dute diru-laguntza ematea behin betiko onartuko duen ebazpen arrazoituaren bidez.

Ebazpenean ondokoak azaldu behar dira gutxienez: diru-laguntza jasoko duen pertsona edo eragile eskatzailearen izena eta gainerako eskaerak ezetsi direla. Halaber, ebazpenean bertan jakinaraziko zaizkie interesdunari ebazpenaren aurka jar ditzaketen errekurtsioak, zer organo judizial aurkeztu behar dizkioten, eta hori egiteko epea; dena dela, interesdunak egoki irizten dioten beste edozein eskubide ere gauza dezakete.

Ebazpenak administrazio bideari amaiera emango dio eta, administrazioarekiko auzibideetarako jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. artikulua xedatutakoaren ildotik, haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez daiteke administrazio auzietarako epaitegietan bi hilabeteko epean, hura jakinarazten den unetik aurrera.

Zuzenean aurka egin ezean, hilabeteko epealdian errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman duen organoari, herri administrazioen administrazio prozedura erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 legearen 123 eta 124 artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz.

8. Diru-laguntza ordaintzea

Diru-laguntzak kobratzeko, oinarri hauetan xedatutako berariazko kasuetan izan ezik, dagozkien fakturen eta ordainketa egiaztagirien jatorrizkoak eta fotokopiak aurkeztu beharko dira.

Laguntza ordainketa bakarrean ordainduko da.

9. Onuradunen betebeharrak

Ondoko kasuetan familia onuradunek deialdi honen bidez emandako diru-laguntzak gal ditzakete, espedientea ireki eta gero:

- Aurkeztutako eskaera eta agirietan datu faltsuak jarri badira.
- Dokumentazioa aurkezteko epealdia amaitutakoan, hori aurkezteko eskaera espresua eginda, hori aurkezten ez bada.
- Oro har, oinarri hauetan edo diru-laguntza ematen duen erabakian ezarritako betebeharretako bat betetzen ez bada.

Diru-laguntza galduz gero, jasotako diru kopuruak eta, hala badagokio, diru-laguntza ordaindu zen egunetik sortutako berandutze interesa, itzuli beharko dira Zuiako udalaren kontura transferentzia eginez.

10. Diru-laguntzen bateragarritasuna

Diru-laguntza hauek bateragarriak izango dira Kontzejuari beste Erakunde, Entitate edo Organismo publiko edo pribatu batzuek eman ahal dioten bestelako diru-laguntzekin.

Oinarri hauen interpretazioan sortzen diren zalantzak alkateak ebartziko ditu, informazio batzordeak eta batzorde teknikoak txostena eman eta gero.

**ZUIAN DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO DEIALDIA ARAUTZEN DUTEN OINARRIAK,
COVID-19K ERAGINDAKO ALARMA EGOERAREN ONDORIOZKO KRISI
SOZIAL ETA EKONOMIKOARI AURRE EGITEN LAGUNTZE ALDERA**

1. Xedea

Deialdi honen helburua da txikizkako merkataritza, ostalaritza eta jatetxeei, zein norberaren konturako langile -autonomoak-, enpresa eta elkarteei zuzendutako diru-laguntzak ematea, horien izaera juridikoa edozein dela, eta beren jarduera edota zerga egoitza Zuian badute, laguntza horien bitartez alarma egoeraren deklarazioak eragindako krisi egoera larria arintze aldera.

Krisi ekonomiko eta sozial hau dela bide jartzen ditu Zuiako Udalak laguntza hauek premiazko neurri gisa eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17. artikulua babespian, eragile ezberdinen enpresa edo ekonomia jarduera gutxitu edo eteteak sortutako eragin ekonomikoa arindu eta udalerrian jarduera ekonomikoa sustatze aldera.

2. Laguntzaren onuradunak

Onuradunak izan daitezke txikizkako saltokiak, ostalaritzako establezimenduak eta jatetxeak, zein pertsona autonomoak edo enpresak eta elkarteak, edozein forma juridikoa izanda, eta Zuian jarduten badute eta egoitza fiskala Zuian edo beste udalerrri batean badute eta, betiere, erakunde edo pertsona eskatzailearen saltoki edo zerbitzuak emateko gune bakarra (jardueraren lanleku bakarra) Zuiako udalerrian badago, eta martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua ezartzearen ondorioz beren jarduera bertan behera utzi edo beren diru sarrerak murriztu badira. Hori guztia, gainera, diru-laguntza mota bakoitzaren inguruan ondorengo artikuluan (3) xedatutakoa kontuan izanda beteko da.

Enpresak direla-eta, oinarri hauetan ezarritako betekizunen bat betetzen ez duten enpresen ehuneko 25 edo gehiagoko partaidetza zuzena edo zeharkakoa ez izatea exijituko da.

Deialdi honetan araututako laguntzak eskuratzen dituzten pertsona fisiko eta juridikoei, eta horien jarduera erabat eten bada COVID 19k eragindako alarma egoeraren ondorioz, aipatu alarma egoera amaitu eta, gehienez, hurrengo bi hilabete epearen buruan jarduera berrabiarazteko konpromisoa hartuko dute eta, gutxienez, laguntza hauek eman eta ondorengo sei hilabeteetan mantendu beharko dute.

3. Laguntza motak eta horiek eskuratu ahal izateko eskakizunak

Honelakoak izan daitezke diru-laguntzak:

a) 1. mota: egitura gastuetarako diru-laguntza.

Beren jarduera ekonomikoa bakarrik Zuian garatzen duten establezimendu, negozio, enpresa eta elkarte guztiei zuzenduta, duten langile kopurua edozein dela. Jarduerari lotutako egitura gastuetarako diru-laguntza izango da, alarma egoeran zehar irekita egon direnek gastuak izan eta izaten jarraitzen dituztela ulertuta, eta horren ondorioz langileak NBEak eta higiene eta desinfekzioarako materialez hornitu behar izan dituztela.

Enpresa eta merkataritza jarduerari lotutako egitura gastuen zenbatekoa ezartzea zaila denez eta horien zenbatekoa modu objektiboan ezartzearen, laguntza berdintasun eta gardentasunez eman ahal izateko, diru-laguntzaren zenbatekoa bat etorriko da zabor bilketaren zerbitzuari eta, hala badagokio, aurtengo ekitaldian espazio publikoak terraza eta mahaiekin okupatzeari dagozkien tasen baturarekin.

b) 2. mota: 3 aldaera daude:

2. A. Diruzko laguntzak, jarduera baten titular diren autonomoei edo sei langile edo gehiago dituzten enpresei, jarduera etenda badute.

2.000 euroko ordainketa bakarra emango zaie jarduera edo negozio baten titular diren autonomo, enpresa eta elkarteei, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren aurretik sei langile edo gehiago kontratatuta bazituzten.

2. B. Diruzko laguntzak, jarduera baten titular diren autonomoei eta aurreko atalean jaso ez diren enpresa eta elkarteei, horien jarduera etenda egon bada.

1.000 euroko ordainketa bakarra egingo zaie 6 langile baino gutxiago kontratatuta zituztenei, alarma deklaratzearen ondorioz beren jarduera eten behar izan badute.

2. C. Diruzko laguntzak, beren jarduera funtsezkotzat jo izanagatik eten ez duten, baina 2019ko lehen seihilekoarekin alderatuz diru sarreretan ehuneko 30etik gorako murrizketa justifikatzen duten autonomo, enpresa eta elkarteei.

700 euroko ordainketa bakarra izango da.

Diru-laguntza bakarra emango zaio saltoki, ostalaritzako establezimendu edo jatetxe bakoitzari edo zerbitzuak ematen dituen zentro bakoitzari.

c) 3. Mota: Aurrerakin itzulgarriak autonomo, enpresa eta elkarteei.

Jarduera zentro bakarra Zuian duten autonomo, enpresa eta elkarteei zuzenduta daude.

Aurrerakin itzulgarria eskatu ahal izango da ehuneko 0ko interesarekin, gehieneko zenbatekoa 10.000 eurokoa izango da eta gehienez 5 urtetan itzuli beharko da.

Aurrerakina hilekoetan itzuli beharko zaio udalari, eta hilabete bakoitzeko zenbateko osoa 60 frakzio edo gutxiagotik zatitzetik aterako da, horiei inolako interesik ezarri gabe. Lehen zatia 2021eko urtarrilean ordainduko da, onuradunak, aurrez, egoki irizten dituen ordainketak egin ahalko dituela edo edozein unetan zor duen zenbateko osoa ordaindu ahalko duela baztertu gabe.

Enpresa edo elkarte bakoitzeko eskaera bakarra diruz lagundu ahalko da eta, betiere, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren ondorioz beren jarduera ekonomikoa eten behar izan badute.

Epe muga heldu eta hiru zati ordaindu ez badira (jarraian edo tarteka), oraindik ordaintzeke dagoen diru-laguntza osoa eta berandutze interesa itzuli beharko dira eta, hala badagokio, premiamendu bidez.

Enpresa guztiek behar bezala eratuta eta Zuiako ekonomia jardueren zergan altan egon beharko dute, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua indarrean sartu baino lehen.

Hiru laguntza motak elkarrekin bateragarriak izango dira, bakoitzaren eskakizunak betez gero.

4. Aurrekontu kreditua

1. motako laguntzak: Egitura gastuetarako diru-laguntzarako 60.000 euroko zenbatekoa aurreikusten da eta 2020ko gastuen aurrekontuko 439.471.010 partidatik ordainduko da.

2. motako laguntzak: Diruzko laguntzak autonomo, enpresa eta elkarteentzat, beren langile kopuruaren arabera eta beren jarduera eten bada edo ez; 150.000 euroko zenbatekoa aurreikusten da hauetarako eta 2020ko gastuen aurrekontuko 439.471.010 partidatik ordainduko dira.

3. motako laguntzak: interesik gabeko aurrerakin itzulgarriak; 200.000 euroko zenbatekoa aurreikusten da hauetarako eta 2020ko gastuen aurrekontuko 439.471.010 partidatik ordainduko dira.

Oinarri hauetan aurreikusitako 3 diru-laguntza mota hauetako edozeini zuzendutako kreditua aurkeztutako eskaera guztiei erantzuteko bestekoa izan ezean, horien artean hainbanatuko da,

beste partidetan soberako kreditua egonez gero izan ezik, kasu horretan behar bestekoa ez denari gehitu ahal izango baitzaio banatu baino lehen.

5. Eskaerak aurkezteko epea eta modua

Laguntza mota guztietarako eskaerak deialdi hau Arabako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aurrera eta aurtengo abuztuaren 14ra arte aurkeztu ahalko dira.

Udaletxeko sarrera erregistroan entregatuko dira eskabidea eta agiriak edo, bestela, Herri administrazioen administrazio prozedura erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4. artikuluan adierazitako beste edozein bideren bitartez.

Diru-laguntza hauek jaso ahal izateko eskaerak aurkeztean espresuki eta formalki onartzen da oinarri hauetan ezarritakoa.

Ondorengoak izango dira autonomo, establezimendu, negozio, enpresa eta elkarteentzako laguntzak eman ahal izateko eskatutako agiriak:

- Diru-laguntzaren eskabidea ezarritako ereduaren arabera.
 - Erantzukizunpeko adierazpena, eskabide ereduaren arabera.
 - 2020ko otsaileko autonomoen ordainagirien kopia.
 - Eskatzailearen NANaren kopia, pertsona fisikoa izatekotan.
 - Eraketa eskritura eta estatutuak, elkarteen kasuan dagokion erregistroan inskribatuta, eta eskatzailearen IFKren kopia edo, hala badagokio, ahaldunaren NANA (gainera, ahalordetze eskrituraren kopia aurkeztu beharko da).
 - Jarduera etetearen egiaztagiria edo diru sarrerak murriztu izanaren ziurtagiria.
 - Zerga eta gizarte segurantzarekiko betebeharrak egunean izatearen ziurtagiriak, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua indarrean sartu aurreko hilabete baino gutxiagoko antzinasundunak, udalari horiek eskatzeko baimendu ezean. Era berean, Zuiako toki erakundeekiko eta udalarekiko berarekiko betebeharrak egunean egotearen ziurtagiriak (edo zinpeko adierazpena).
 - GSDNk emandako enpresaren lan bizitzaren txostena, 2020ko martxoaren 14ko datarekin.
 - Eskatzailearen kontu zenbakia.
 - 3. artikuluko 2. C motako laguntzak eskatzekotan, diru sarrerak 2019ko lehen seihilekoarekin alderatuz murriztu direla dioen ziurtagiria aurkeztu beharko da.
- Onuradunak bere gain hartzen du egindako erantzukizunpeko adierazpen guztien egiazko-tasuna, baita aurkeztutako gainerako agiri guztiena ere.

6. Diru-laguntzen zenbatekoa

Diru-laguntzen guztizko zenbatekoak ezingo du, inolaz ere, Zuiako Udalaren aurrekontu orokorrean helburu horretarako aurreikusitako partidetan esleitutako zenbatekoa gainditu, eta oinarri hauetako hiru laguntza motetara zuzendutako partidei lotuta daude, 4. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Laguntza lerro hau bateragarria izango da beste herri administrazio batzuek abian jar ditzaketen laguntzekin, baldin eta COVI-19k eragindako galera baino diru-laguntza handiagoa jasotzen ez bada.

7. Dokumentazioa

Eskatzaileek, gehienez, hamar egun izango dituzte atzemandako hutsak zuzentzeko eta, horrelakorik egin ezean, eskabideari uko egin zaiola ulertuko da, besterik gabe, baina behar bezala justifikatutako arrazoiengatik, epea luzatu ahal izango da.

Udalak beretzat gordetzen du diru-laguntzaren onuradunak emandako datu guztiak egiazkoak direla egiaztatzeko eskubidea. Horretarako, dokumentazio gehigarria eskatu ahal izango du prozeduraren edozein momentutan eta, onuradunek eskatutako dokumentazioa aurkeztu ezean, prozedurari uko egiten diotela ulertuko da eta, diru-laguntza jaso badute, itzuli egin beharko dute.

Datuen babeseko indarreko araudiak dioena jarraituz, oinarri hauetan araututako laguntzen eskatzaileei jakinarazten zaie dagokion eskaeraren bidez edota laguntzak izapidetzearan edota eman ondoren horiek kudeatzean aurkeztutako edozein agiriren bidez emandako datu pertsonalak Zuiako Udalak jasoko dituela tratatuak izateko eta berorrek kudeatuko dituela. Eskaera kudeatzeko eta aipatutako laguntzak izapidetzeko erabiliko dira datuok, ez beste ezertarako.

Tratamenduaren zilegitasunaren oinarria 2016ko apirilaren 27ko Europako Parlamentuaren eta Europako Kontseiluaren 2016/679 Araudiaren (EB) 6.1.e) artikulua da, pertsona fisikoen datu pertsonalaren babesa eta haien zirkulazio librea xedatzen duena (Datuen Babeserako Araudi Orokorra): datuen tratamendua beharrezkoa da interes publikoa duen betebeharrak gauzatzeko edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoa gauzatzeko: 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakunde berririk buruzkoa; 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituena, eta diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa.

8. Diru-laguntzak emateko irizpideak

Egindako eskaerak aintzakotzat hartu ahal izateko, horiek osorik beteta egon beharko dira, eta udalak eskatutako agiri guztiak aurkeztuko dira, haietako bakoitzaren zertzelada guztiak zehaztu ahal izatearren.

9. Erantzukizuna finantzaketan

Ordenantza arautzaile hauen kontura ematen diren laguntzen onuradunek laguntzak emateko aurreikusitako baldintza guztiak betetzeko ardura izango dute.

10. Eskabideak aztertu eta ebaztea

Eskaerak aurkezteko epealdia amaitutakoan aztertuko dira eta erabakiko da diru-laguntzak ematea edo ukatzea, udalean ordezkaturik dauden taldeetako partaide guztiek osatutako informazio batzordearen barruan.

Behin betiko ebazpen proposamena kide anitzeko organoak eta alkateak egingo dute diru-laguntza ematea behin betiko onartuko duen ebazpen arrazoituaren bidez.

Ebazpenean ondokoak azaldu behar dira gutxienez: diru-laguntza jasoko duen pertsona edo eragile eskatzailearen izena eta gainerako eskaerak ezetsi direla. Halaber, ebazpenean bertan jakinaraziko zaizkie interesdunei ebazpenaren aurka jar ditzaketen errekursoak, zer organo judizial aurkeztu behar dizkieten, eta hori egiteko epea; dena dela, interesdunek egoki irizten dioten beste edozein eskubide ere gauza dezakete.

Ebazpenak administrazio bideari amaiera emango dio eta, administrazioarekiko auzibideetarako jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. artikulua xedatutakoaren ildotik, haren aurka administrazioarekiko auzi errekursoa aurkez daiteke administrazio auzietarako epaitegietan bi hilabeteko epean, hura jakinarazten den unetik aurrera.

Zuzenean aurka egin ezean, hilabeteko epealdian errekursoa aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman duen organoari, herri administrazioen administrazio prozedura erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 legearen 123 eta 124 artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz.

11. Diru-laguntza ordaintzea

Beste edozein administrazio, erakunde edo entitate publikotatik helburu bererako beste diru-laguntza edo laguntza batzuk eskuratu diren ala ez dioen zinpeko deklarazioa aurkeztu beharko du onuradunak.

Beste diru-laguntzaren bat eskuratu bada, lortutako zenbatekoa eta administrazio emailea adierazi eta datu horien egiazkotasuna ziurtatzen duen agiria aurkeztu beharko da, jasotako laguntza guztien zenbatekoa diru-laguntzaren xedea baino handiagoa izan ez dadin.

12. Pertsona eta eragile onuradunen betebeharrak

Ondoko kasuetan pertsona edo eragile onuradunek deialdi honen bidez emandako diru-laguntzak gal ditzakete, espedientea ireki eta gero:

- Aurkeztutako eskaera eta agirietan datu faltsuak jarri badira.
- Dokumentazioa aurkezteko epealdia amaitutakoan, hori aurkezteko eskaera espresua eginda, hori aurkezten ez bada.
- Oro har, oinarri hauetan edo diru-laguntza ematen duen erabakian ezarritako betebeharrerako bat betetzen ez bada.
- Aurrerakin itzulgarrien kasuan, epe muga heldu eta hiru zati ordaindu ez badira (jarraian edo tarteka), oraindik ordaintzeke dagoen diru-laguntza osoa eta berandutze interesa itzuli beharko dira eta, hala badagokio, premiamendu bidez.

Diru-laguntza galduz gero, jasotako diru kopuruak eta, hala badagokio, diru-laguntza ordaindu zen egunetik sortutako berandutze interesa, itzuli beharko dira Zuiako Udalaren kontura transferentzia eginez, diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean xedatutakoarekin bat.

Erakunde batek eskatutako zenbatekoa borondatez itzuli ezean, ez du udalaren beste ezein diru-laguntza jasoko, eta udalak zenbateko horiek berreskuratu ahal izango ditu.

13. Diru-laguntza aldatzea

Diru-laguntza emateko kontuan hartutako baldintzetan gertatzen den edozein aldaketak, ebazpena aldatzeko bide eman dezake.

14. Diru-laguntzen bateragarritasuna

Diru-laguntza hauek bateragarriak izango dira Kontzejuari beste Erakunde, Entitate edo Organismo publiko edo pribatu batzuek eman ahal dioten bestelako diru-laguntza edo laguntzekin.

Udal honek emandako diru-laguntza ezingo da izan, inola ere, onuradunak garatutako jardueraren kostua baino handiagoa.

15. Interpretazioa

Oinarri hauen interpretazioan sortzen diren zalantzak alkateak ebatziko ditu, informazio batzordeak eta batzorde teknikoak txostena eman eta gero.

16. Arau-hausteak eta zehapenak

Diru-laguntzak direla eta, administrazioko arau hauste izango dira diru-laguntzak eta laguntzak arautzen dituen ordenantza orokorreko IV. Kapituluan (Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta horren arautegia) jasotako egite edo ez-egiteak, eta horietan ezarritako prozeduraren arabera zehatuko dira.

17. Legeria gehigarria

Oinarri hauetan xedatu ez den guztian, diru-laguntzen lege orokorrean eta horren arautegian xedatutakoa hartuko da kontuan.

Kontzejuentzako diru-laguntzen deialdia eta oinarri arautzaileak, bere eskumenen arloetarako, bai eta azpiegituretarako eta kontzejuaren jabetzakoak izan ez arren herriaren zerbitzurako diren higiezinaren mantentze lanetarako ere

1. Deialdiaren helburua

Diru-laguntzen bidez, udalerriko toki erakundeekin lankidetzan aritzea, aurrekontu mugen barruan, honakoak egiteko: haien azpiegiturak hornitu eta jartzeko, hobetzeko, berriztatze, handitzeko, eta, kontzejuen jabetzakoak izan ez arren, herriaren zerbitzurako erabiltzen diren higiezinaren mantentze lanak egiteko, eta horretaz gain, zerbitzu egokiak emateko, herritar guztien bizitza maila hobetzen laguntze aldera, baldintza berberetan. Horretarako, udal lurralde osoan garapen eraginkor, berdintsu eta koherentea izateko ahaleginak egingo dira.

2. Onuradunak

Diru-laguntzen onuradun izan daitezke Zuiako Udalerrian legez eraturik dauden toki erakunde edo administrazio batzar guztiak, bakoitza bere eskumenen eta azpiegituren eremuan, bai eta erakunde horiek kontzejuen jabetzakoak ez diren higiezinaren mantentze lanak egiten dituztenean ere, herriaren zerbitzurako erabiltzen badira.

3. Diruz lagundu daitezkeen programak

Udalerri honetako kontzejuen eskumeneko azpiegitura eta zerbitzuei dagozkien ondorengo arloek jaso ahal izango dute diru-laguntza:

3.1. Kontzejuaren titularitateko ondasunetan egiten diren obrak eta inbertsioek: laguntza lerro hauen bidez lortu nahi da kontzejuei erraztasunak ematea eta administrazioak motibatzea azpiegiturak, zerbitzuak eta ondare ondasunak hobetzeko, beti ere haien herritar guztien onura helburu dutela, iraunkortasun eta lurralde orekaren irizpideen pean.

3.1. atalari dagozkion programa eta proiektuetarako eskabideak aurkezteko epearen azken eguna 2020ko azaroaren 30ea izango da, eta egun horretara arte eta urtean zehar obretarako beharrezkotzat jotzen diren eskaerak aurkeztu ahal izango dira.

Ezarritako lehentasun hurrenkeraren arabera, honako atalak desberdindu daitezke definizio honetan:

a) Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren eta ObraTxikien Programaren barruan finantzatutako obra eta inbertsioek Arabako Foru Aldundiak jaso duenaren diru-laguntza osagarria jasoko dute, eta diru-laguntza emateko foru-erakundeak aintzat hartutakoaren arabera diruz lagundu daitezkeen aurrekontuaren ehuneko 98raino estaliko du. Portzentaje horretan proiektua idazteari eta teknikarien zerbitzu-sariei dagokien diru-laguntza osatuko da. Diru-laguntza hori bateragarria izango da Kontzejuak beste edozein Erakunde, Entitate edo Organismotik jaso ditzaketen bestelako laguntza publiko edo pribatuekin. Elkarren artean bateragarriak izango dira diru-laguntzak, obra edo zerbitzuaren ehuneko 100etik gorakoak direnean izan ezik. Horrelakoetan, Udalaren kargurako ekarpena ehuneko 100 horretara heldu arte gutxituko da.

b) Hainbat erakunderen eta programen diru-laguntza, gutxienez aurrekontu osoaren ehuneko 20koa, izan duten ekipamenduetarako inbertsio eta erosketek aldearen ehuneko 50eko diru-laguntza izango dute, 30.000 euroko mugarekin kontzejuko eta urteko. Portzentaje bereko diru-laguntza jasoko dute proiektua idazteak eta lanaren zuzendaritzak, legeak horiek eskatzekotan.

c) Helburua energia berriztagarriak eta energia-eraginkortasuna dituzten jarduketetan, diru-laguntza aurrekontuaren ehuneko 50 artekoa izango da. Jarduketan helburua edateko uraren kudeaketa eta ingurumenaren babesa badira, diru-laguntza aurrekontuaren ehuneko 25 artekoa izango da. Ehuneko 50 eta ehuneko 25eko portzentaje bereko diru-laguntza jasoko dute proiektua idazteak eta lanaren zuzendaritzak, legeak horiek eskatzekotan.

d) Beste entitate eta erakunde batzuek diruz lagundu gabeko gainerako obrek eta ekipamenduek aurrekontu osoaren ehuneko 18ko diru-laguntza izango dute. Ehuneko 18ko portzentaje bereko diru-laguntza jasoko dute proiektua idazteak eta lanaren zuzendaritzak, legeak horiek eskatzekotan.

e) Kontzejuaren titularitateko ondasunen mantentze lanek aurrekontu osoaren ehuneko 18ko diru-laguntza izango dute.

f) Ehuneko 50eko diru-laguntza emango zaio, beste erakunde bat (Udala, Eusko Jaurlaritza, Aldundia, URA,...) bere lurralde-eremuan egiten ari den lanez baliatuta, beste zerbitzu batzuetarako kanalizazioak sartu edo lurperatzeko lanak egiten baditu. Batzordeak hartuko du diru-laguntza hori emateko erabakia eta erakundeari lehenbailehen jakinaraziko zaio.

Deialdiaren aurrez aurreko 10 urteetan diru-laguntza jaso duen inbertsorik ez da diruz lagunduko, ezta aurreko 10 urteetan diru-laguntza jaso duen inbertsioaren helburua aldatzen duenik ere, ezinbestekoa ez bada behintzat eta, betiere, eskaera aztertuta.

Altzarietarako diru-laguntzen kasuan, dagokion zerbitzua funtzionatzeko beharrezkoa den ekipamendua diruz lagunduko da, merkatuko batez besteko kalitateari dagokion prezioaren arabera.

3.2. Argiteria publikoa: urteko gastuaren ehuneko 95eko diru-laguntza. Diru-laguntza honen helburua da kontzeju bakoitzak arlo horretan egindako gastuan laguntzea, kaleko argiteria publikoan energia kontsumoa murrizteko xedea duten inbertsioak eta jarduketak egitea sustatuz eta aldarrikatuz, Zuiako energia eraginkortasuna eta indarra hobetze aldera.

Emandako diru-laguntza kobratzeko eskubidea izateko, kontzejuak aurreko urteko abendutik indarreko urteko azarora arteko gastuen jatorrizko fakturak eta horien fotokopiak (konpultsatuak izan daitezten) aurkeztuko dituzte indarrean den urteko abenduaren 15 baino lehen.

3.3. Kultura eta jai arloko jardueretarako diru-laguntzak: atal honen bidez, kontzejuetako kultur eta jai arloko jarduerak bultzatu nahi dira eta jarduera horiek sor ditzakeen gastuetan lagundu, auzokoen arteko harremanak eta herritarren talde zentzua sustatuz, bai kontzejuen barruan, bai kontzejuz kanpo ere. Era berean, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunezko partaidetza eta generoen ohiko rolen haustura sustatu nahi da. Jarduera guztiek indarrean dagoen araudia bete behar dute, eta, bereziki, COVID -19aren pandemia dela eta emandako arauak bete behar dituzte.

Horien barruan, honakoak desberdintzen dira:

a) Urteko kopuru finkoa: Kontzeju edo jai batzorde bakoitzari 500 euroko diru kopuru finkoa emango zaio herriko jaiak ospatzeko. Horretarako baldintzak bi izango dira: jai egitaraua aurkeztea, eta, bertan, ez jasotzea aisialdi- edo kultur-ekintzarik, emakumeen kontrako diskriminazioa eta/edo hauen kontrako indarkeria, bere modu ezberdinetan, gauzatzen dituztenik.

b) Kultur ekitaldiak: ehuneko 50eko diru-laguntza izango dute jai egitarauaren barruan egon eta kultur izaera nabarmen eta argia duten ekitaldiek sortutako gastuek. Gehieneko muga 3.500 eurokoa izango da. Dirulaguntzatik kanpo geratuko da emakumeen kontrako diskriminazioa eta/edo honen kontrako indarkeria, bere modu ezberdinetan, gauzatzen duen edozein programa.

Diru-laguntza hori ehuneko 70eraino helduko da, gehieneko muga 3.500 eurokoa dela, hizkuntza normalizazioaren eta sustapenaren mesedetan, jarduera hori osorik euskaraz burutzen bada.

Era berean, administrazio batzarrek, beren urteko egitarauaren barruan, beste kultura jarduera batzuk sustatu ahal izango dituzte, eta laguntza jaso ahal izango dute horren interesean oinarrituta.

c) Zuzeneko kontzertuak eta musika eta DJ: ehuneko 50eko diru-laguntza emango da zuzeneko musika emanaldiek, gehienbat, berbenek, kontzertuek eta errezitaldiek sortutako gastuetarako. Gehieneko muga 1.500 eurokoa da administrazio batzar bakoitzeko.

Ez da inolaz ere diru-laguntzarik emango janariak, garaikurrek, opariak eta sariak sortutako gastuetarako.

Era berean, administrazio batzarrek honakoak aurkeztu ahal izango dituzte: jai batzorde bakarra dagoela egiaztatzen dituzten agiriak eta horren izenean egindako kudeatzeko ardura. Diru-laguntzei buruzko agiri guztiek administrazio batzarraren oniritzia izango dute, eta horixe izango da erantzule subsidiarioa.

Emandako diru-laguntzak jasotzeko eskubidea izateko, kontzejuek jarduera horiek hasi aurretik eta, beti ere, azaroaren 30ea baino lehen, herriko jaietako egitarauan jasotako jardueren aurrekontua aurkeztuko dute. Egitarau hori bukatu ondoren eta, beti ere, jarduneko urteko abenduaren 29 baino lehen, honakoak aurkeztuko dira: kasuan kasuko diru kopuruen jatorrizko fakturak, ordainagiriak eta horien guztien kopia, konpultsatzeko.

3.4. Kale eta bideen garbiketa: kontzejuaren hirigunea osatzen duten kale, bide eta urbanizatuen dauden eremuetan sasiak kendu eta horiek erabat garbitzeko eta arekak eta erregistroak garbitzeko bi jarduketari dagokien gastuaren diru-laguntza. Garbiketa-lan horiek behar bezala egin ahal izateko, administrazio batzarrak eta udalak zein eremu garbituko diren adostuko dute, horiek behar bezala mugatuta. Ekarpen hau udalak zuzenean zerbitzua emanaz egingo da.

3.5. Nekazaritza eta abeltzaintza bideen sarearen mantentze lanak egitea: atal honi buruzko kasuan kasuko partidarekin, ehuneko 50eko partaidetza izango da hala erabakitzen duten kontzejuen nekazaritza eta abeltzaintza bideen garbiketari. Onik zaintzeko irizpideetan oinarriturik, garbiketa horrek, hau da, areketatik sastrakak kentzeak, behar bezalako maiztasuna izango du, eta enpresa bakarra kontratatuko da lan hori egiteko. Lehentasuna emango zaio herriko enpresaren bati lan hori esleitzea.

Diru-laguntza hori eskuratzeko, kasuan kasuko ekainaren 29 baino lehen dagokion eskaera aurkezteaz gain, kontzejuek hitz eman behar dute gutxienez bi (2) urterik behin egingo dutela kontzeju sare osoko nekazaritza bideen garbiketa.

Azpiegitura horien mantentze lanak behar bezala egin ez dituzten kontzejuek etorkizunean diru-laguntza horiek eskuratu nahi izanez gero, lan horiek sortutako gain kostua ordaindu behar dute.

3.6. Neguko kanpaina: kontzejuaren titularitateko kaleetatik elurra kentzeko gastuaren ehuneko 50eko diru-laguntza, makinak erabiltzearen prezioa orduko 60 eurokoa (BEZa aparte) dela oinarri hartuta. Udalaren titularitateko kaleak direnean, diru-laguntza gastu osorako izango da.

Emandako diru-laguntza kobratzeko eskubidea izateko, kontzejuek honakoak aurkeztu behar dituzte abenduaren 15ea baino lehen: gastuari dagozkien diru kopuruen jatorrizko fakturak edo ordainagiriak eta horien fotokopiak, konpultsatzeko. Neguko kanpaina aurreko urteko abenduaren 1etik indarreko urteko azaroaren 30era artekoa izango da.

3.7. Kudeatze gastuetarako diru-laguntza orokorra: administrazio batzar guztiek jasoko dute urtea bukatu baino lehen landa eta hiri ondasun higiezinaren gaineko zerga dela-eta udalari ordaindu dioten diru kopuruaren ehuneko ehuna, diruzainak zerga hori kobratu izana adierazten duen egiaztagiria egin eta gero.

3.8. Jabetza Erregistroan ondasun eta eskubideen inbentarioa eta ondasunen inskripzioa eguneratzea. Gehienez ere, kostuaren ehuneko 50eko diru-laguntza emango da. Kontzejuek helburu honetarako eskaerak 2020ko irailaren 30era eskatuko dituzte.

4. Diruz lagundu daitezkeen beste programa batzuk

Parrokia elizan egindako mantentze lanak: lan horren ehuneko 18.

Deialdiaren aurrez aurreko 10 urteetan diru-laguntza jaso duen inbertsorik ez da diruz lagunduko, ezta aurreko 10 urteetan diru-laguntza jaso duen inbertsioaren helburua aldatzen duenik ere, ezinbestekoa ez bada behintzat eta, betiere, eskaera aztertuta.

Deialdi honetan parte har dezakete udalerriko kontzejuek, kontuan izanik parrokiaren hiegizina herriaren zerbitzura lotuta daudela.

Onuradunek eskatzen zaien informazio oro emateko betebeharra dute. Beharrezkoa da alde zuzenetik gogoratuak kontzejuari lan horiek egiteko baimena ematea.

Diru-laguntza eskatzeko epea azaroaren 30ean amaituko da.

5. Aurrekontu kreditua

Diruz lagundu daitezkeen beste programa batzuk izeneko 3.1 atalean eta 4. puntuan adierazitako diru-laguntzei dagokienez, hona Zuiako udalaren 2020ko gastuen aurrekontutik gastu horietarako erabiliko den partida: "administrazio batzarrentzako diru-laguntzak" izeneko 943734000 partida, 180.000 eurokoa.

3.2 eta 3.4 ataletako diru-laguntzei dagokienez, hona Zuiako udalaren 2020ko gastuen aurrekontutik gastu horietarako erabiliko diren partidak: bata, "administrazio batzarrentzako diru-laguntzak argiteri publikorako eta garbiketarako" izeneko 165434000 partida, 63.000 eurokoa, eta, bestea, kaleen garbiketa, udala eta kontzejuek (udalak zuzenean emandako zerbitzu bat baita) izeneko 163227030 partida.

3.3 ataleko diru-laguntzei dagokienez, hona Zuiako udalaren 2020ko gastuen aurrekontutik gastu horietarako erabiliko den partida: "administrazio batzarren jaietarako diru-laguntza" izeneko 338434000 partida, 27.000 eurokoa.

3.5 ataleko diru-laguntzei dagokienez, hona Zuiako udalaren 2020ko gastuen aurrekontutik gastu horietarako erabiliko den partida: nekazaritza eta abeltzaintza bideak garbitzeko diru-laguntza izeneko 410227011 partida, 15.000 eurokoa. Udalak 8.000 euroko ekarpena egingo du eta gainerakoa kasuan kasuko kontzejuek.

3.6 ataleko diru-laguntzei dagokienez, hona Zuiako udalaren 2020ko gastuen aurrekontutik gastu horietarako erabiliko den partida: "kontzejuentzako diru-laguntza elurra kentzeko" izeneko 134434000 partida, 10.000 eurokoa.

3.7 ataleko gastuetarako, hona Zuiako Udalaren 2020ko gastuen aurrekontutik erabiliko den partida: "diru-laguntzak, administrazio batzarrak" izeneko 943434000 partida, 6.104,00 eurokoa.

Azkenik, 3.8. Ondasun eta eskubideen inbentarioa eguneratu eta ondasunak jabetza-erregistroan inskribatzea ataleko gastuak 2020ko ekitaldiko 943.734.010 (Inbentarioa) partidaren kargura diruz lagunduko dira. Horren zenbatekoa 15.000 eurokoa da.

6. Diru-laguntzen zenbatekoa

Udalak, inguruabar bereziak edo egokierakoak oinarri hartuta, zenbait eskaerari tratu berezia eman ahal izango die, udalerrientzat duten interes bereziarengatik. Holakoetan, programaren kostu osorainoko aldearen ehuneko 100 era heldu ahal izango da.

Oraingoan deitutako diru-laguntzak bateragarriak izango dira beste erakunde publiko edo pribatu batzuek helburu bererako emandako beste edozeinekin, horiek obra edo zerbitzuaren kostuaren ehuneko 100etik gorakoak direnean izan ezik. Horrelakoetan, Udalaren kargurako ekarpena ehuneko 100 horretara heldu arte gutxituko da.

Diru-laguntzen guztirako zenbatekoa inolaz ere ezin daiteke izan Zuiako udalak bere aurrekontu orokorrean helburu horietarako partidetan ezarritako kopurua baino gehiago.

7. Eskabideak aurkeztea

Eskabideen eta agirien aurkezpena udalaren sarrera erregistroan egin daiteke, edo herri administrazioen administrazio prozedura erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 legearen 16.4 artikuluan adierazten diren bideetako edozeinez baliatuz.

Diru-laguntza hauek jasotzeko eskabideak aurkezteak berekin dakar oinarri hauetan ezarritakoa formalki eta espresuki onartzea.

8. Agiriak

Eskabide ofiziala eta inprimakia (udalak emango ditu). Inprimaki bat bete beharko da proiektu bakoitzeko.

Erakunde eskatzaileek gehienez ere hamar egun izango dituzte nabaritutako akatsak konpontzeko eta, horrela ez egitekotan, eskabideari uko egiten zaiola ulertuko da, izapide gehiagorik gabe. Hala ere, behar den bezala justifikatutako arrazoiengatik, luzatu ahal izango da epe hori.

Datu pertsonalak babesteari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan eta 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoa betetze aldera, erakunde eskatzaileei ohartarazten zaie zerrendatutako dokumentazioaren zati gisa aurkeztutako datuak oinarri hauetan arautzen den deialdiaren urteko diru-laguntza emateko prozeduran soilik erabiliko direla.

9. Diru-laguntzak emateko irizpideak

Egindako eskaerak aintzakotzat hartu ahal izateko, horiek osorik beteta egon beharko dira, eta udalak eskatutako agiri guztiak aurkeztuko dira, haietako bakoitzaren zertzelada guztiak zehaztu ahal izatearren. Bereziki, era fidagarrian ziurtatu beharko da obraren eta izan litezkeen desbideraketen finantzaketa osoa.

10. Erantzukizuna finantzaketan

Ordenantza arautzaile hauen kontura ematen diren laguntzen onura jasotzen duten toki erakundeek obra, zerbitzua eta, halakorik izanez gero, horietako ordainsariak osorik finantzatzeko ardura izango dute, bai eta laguntzak emateko aurreikusitako baldintza guztiak betetzeko ere.

11. Eskabideak aztertu eta ebaztea

Eskaerak aurkezteko epealdia amaitutakoan aztertuko dira eta erabakiko da diru-laguntzak ematea edo ukatzea, udalean ordezkaturik dauden taldeetako partaide guztiak osatutako informazio batzordearen barruan.

Behin betiko ebazpen proposamena kide anitzeko organoak eta alkateak egingo dute diru-laguntza ematea behin betiko onartuko duen ebazpen arrazoituaren bidez. Ebazpenean ondokoak azaldu behar dira gutxienez: diru-laguntza jasoko duten eskatzaileen zerrenda (bakarra izan daiteke) eta gainerako eskaerak ezetsi direla.

Halaber, ebazpenean bertan jakinaraziko zaizkie interesdunei ebazpenaren aurka jar ditzaketan errekursoak, zer organo judiziala aurkeztu behar dizkieten, eta hori egiteko epea; dena dela, interesdunek egoki irizten dioten beste edozein eskubide ere gauza dezakete.

Ebazpenak administrazio bideari amaiera emango dio eta, administrazioarekiko auzibideetarako jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. artikulua xedatutakoaren ildotik, haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez daiteke administrazio auzietarako epaitegietan bi hilabeteko epean, hura jakinarazten den unetik aurrera.

Zuzenean aurka egin ezean, hilabeteko epealdian errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman duen organoari, herri administrazioen administrazio prozedura erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 legearen 123 eta 124 artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz.

12. Diru-laguntza ordaintzea

Diru-laguntzak kobratzeko, oinarri hauetan xedatutako berariazko kasuetan izan ezik, dagozkien fakturen eta ordainketa egiaztagirien jatorrizkoak eta fotokopiak aurkeztu beharko dira, konpultsatzeko.

Diru-laguntzen konturako ordainketak, erakunde onuradunek behar bezala onetsitako obra ziurtagiriak eta jatorrizko fakturak edo fotokopia konpultsatutak aurkeztu ondoren eta udalak izendatutako teknikari eskudunek -hala balegokio- haiek onartu ondoren egingo dira.

Obrak izanez gero, obra amaitutakoan enpresa esleipendunari egindako ordainketen egiaztagiria bidali beharko ditu toki erakundeak. Egiaztagiri horiek bidaltzeko hiru hilabeteko epea egongo da.

Beste edozein administrazio, erakunde edo entitate publikotatik helburu bererako beste diru-laguntza edo laguntza batzuk eskuratu diren ala ez dioen zinpeko deklarazioa bidali beharko du tokiko erakundeak, ordainagiriekin batera. Beste diru-laguntzaren bat eskuratu bada, lortutako zenbatekoa eta administrazio emailea adierazi eta datu horien egiazkotasuna ziurtatzen duen agiria aurkeztu beharko da.

Obraren likidazioari edo azkeneko ziurtagiriari dagokion diru-laguntza ordaintzeko baldintza izango da bete beharreko administrazio dokumentu guztiak udalari bidaltzea, lana egin aurrekoak nahiz egin bitartekoak direla, hala nola aktak, hasierakoa, zuinketakoa eta harrerakoa, azkeneko ziurtagiria, etab.

Diruz lagundutako lanak justifikatzeko eperik luzeenak ezingo da diru-laguntza ematen ekitalditik haratago joan, eta horrela ezean, ezeztatu egingo da.

Kontzejuak urteko kontuak aurkeztu eta diruz lagundutako lan bati dagokion faktura bat ordaintzea ezinezkoa zaiola erakutsiko balu, udalak fakturaren zenbatekoa ordainduko du kontzejuaren kontuan. Ordainketa hori diru-laguntzaren konturako abonua izango da. Kontzejuak hartzekodunari ordaindu diola ziurtatu beharko du ordainagiria aurkeztuz, udalaren transferentzia jaso eta 10 eguneko epean. Edozein kasutan, ordainagiriak eta diruz lagundutako gastua zurrizteko dokumentazioa aurkezteko epea aurreko paragrafoan adierazitakoa izango da. Udalak konturako abonua gisa ordaintzen duen kopurua inoiz ere ez da izango egokitutako diru-laguntzaren kopurua baino handiagoa.

Proiektua eta segurtasun eta osasun planak idazteko ordainsarietarako diru-laguntzen ordainketa jatorrizko faktura edo minura edo fotokopia konpultsatua aurkeztu ondoren egingo da, obra esleitu eta gero.

Obraren zuzendaritzako eta segurtasuna eta osasuna koordinatzeko ordainsarietarako diru-laguntzen ordainketa, erakunde onuradunak lanari dagokion azkeneko likidazioa onartzen duenean egingo da.

13. Erakunde onuradunaren betebeharrak. Diru-laguntza galtzea

Diru-laguntza jasotzen duen erakundeak nahitaez burutu beharko du aurkeztutako proiektua. Orobat, deialdi honetan ezarritako xedapenak bete beharko ditu, bai eta laguntzak eta diru-laguntzak emateko prozedura arautzen duen udal ordenantzan agindutakoa ere.

Hain zuzen ere, erakunde eskatzaileari gogorarazten zaio derrigorrezkoa dela Zuiako udalaren babesa aipatzea diruz lagundutako jarduera sustatzeko elementuetan eta horren inguruan egiten diren karteletan, idazkietan edo dokumentuetan. Elementu horiek guztiak EAĒko bi hizkuntza ofizialetan editatu beharko dira. Eta beti ere hizkuntza ez sexista erabiliz, eta genero estereotiporik gabe.

Ondoko kasuetan erakunde onuradunek deialdi honen bidez emandako diru-laguntzak gal ditzakete, espedientea ireki eta gero:

- Aurkeztutako eskaera eta agirietan datu faltsuak jarri badira.
- Dokumentazioa aurkezteko epealdia amaitutakoan, hori aurkezteko eskaera espresua eginda, hori aurkezten ez bada.
- Oro har, oinarri hauetan edo diru-laguntza ematen duen erabakian ezarritako betebeharrretako bat betetzen ez bada.
- Diru-laguntza galduz gero, jasotako diru kopuruak itzuli beharko dira Zuiako udalaren kontura transferentzia eginez. Erakunde batek eskatzen zaion kopurua bere borondatez itzultzen ez badu, ezin izango du udalaren inolako diru-laguntzarik jaso; udalak zenbatekoak eskuratu ahal izango ditu.

14. Diru-laguntza aldatzea

Diru-laguntza emateko kontuan hartutako baldintzetan gertatzen den edozein aldaketak, ebazpena aldatzeko bide eman dezake.

15. Diru-laguntzen bateragarritasuna

Diru-laguntza hauek bateragarriak izango dira Kontzejuari beste Erakunde, Entitate edo Organismo publiko edo pribatu batzuek eman ahal dioten bestelako diru-laguntzekin.

Udalak emandako diru-laguntzaren zenbatekoa, bera bakarrik zein beste administrazio, erakunde edo organismo publiko batzuek emandako laguntza zein diru-laguntzekin bat eginda, ezin da izan inolaz ere onuradunak egin beharreko jardueraren kostua baino gehiago.

16. Interpretazioa

Oinarri hauen interpretazioan sortzen diren zalantzak alkateak ebatziko ditu, informazio batzordeak txosten teknikoa eman eta gero.

17. Arau hausteak eta zehapenak

Diru-laguntzak direla eta, administrazioko arau hauste izango dira diru-laguntzak eta laguntzak arautzen dituen ordenantza orokorreko IV. kapituluan jasotako egite edo ez-egiteak.

18. Legeria gehigarria

Oinarri hauetan xedatu ez den guztian, Zuiako udalaren diru-laguntzak eta laguntzak arautzen dituen ordenantza orokorrean eta diru-laguntzen lege orokorrean eta horren arautegian xedatutakoa hartuko da kontuan.

AYUNTAMIENTO DE ZUIA
MURGIA (ALAVA)ZUIAKO UDALA
MURGIA (ARABA)

ZUIAKO UDALERRIAN, MENDEKOTASUN EGOERA AITORTUAN DAUDEN EDO EHUNEKO 65EKO EDO HORTIK GORAKO EZGAITASUN MAILA DUTEN PERTSONAK, EDO HORRETARAKO IZAPIDEAK EGITEN ARI DIRENAK, ETXEAN ZAINTEKO LANGILEEN KONTRATAZIORAKO LAGUNTZEN ESKAERA.

..... jaunak/andreak,
..... NAN/AIZ duenak; mendekotasun egoera aitortuan dauden edo ehuneko 65eko edo hortik gorako ezgaitasun maila duten pertsonak, edo horretarako izapideak egiten ari direnak, etxean zaintzeko langileen kontratazioak eragindako gastuak ordaintzen laguntzeko laguntzen inguruan, **HONAKOA AZALTZEN DU:**

Jakinarazpenetarako datuak

Helbidea:

Posta Elektronikoa:

Telefonoa:

Jakinarazpenak honela bidaltzea eskatzen dut:

- Posta arruntez
 Posta elektronikoz

Goian adierazitako laguntza eskatzen du.

.....-(e)n, 20.....-(e)ko-aren-(e)an

Sinatuta:

AYUNTAMIENTO DE ZUIA
MURGIA (ALAVA)



ZUIAKO UDALA
MURGIA (ARABA)

I. ERANSKINA - ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

..... jaunak/andreak,
..... NAN/AIZ duenak; mendekotasun egoera aitortuan dauden edo ehuneko 65eko edo hortik gorako ezgaitasun maila duten pertsonak, edo horretarako izapideak egiten ari direnak, etxean zaintzeko langileen kontratazioak eragindako gastuak ordaintzen laguntzeko laguntzen inguruan.

ADIERAZPEN HAU EGITEN DU:

- Diruz lagunduko den epealdi osoan zehar Zuian erroldatuta jarraitzeko konpromisoa hartzen duela. (1)

Pertsona fisikoa kontratatzekotan:

- Zerbitzuak ematen dituen pertsona adin nagusikoa dela eta lan kontratu bidez egiten duela, gizarte segurantzako afiliazio, alta eta kotizazio baldintzak betetz.
- Ez dela onuradunaren ezkontidea, eta/edo odol, ezkontza edo adopzio ahaidetasunezko hirugarren mailara arteko ahaidea, eta familia harreraren ondoriozko loturarik ere ez duela.

Pertsona juridikoa kontratatzekotan:

- Kontratatu duen zerbitzu enpresak behar bezala homologatuta eta baimenduta dagoela.
- Deialdi honen oinarrietan jasotako gainerako baldintzak betetzen dituela.
- Gaurko egunez ez dagoela, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren artikulua arabera, diru-laguntzen onuradun izatea galarazten duten ezein egoeratan.
- Zuiako udalari baimena ematen diodala dagozkion administrazio eskudunei zerga betebeharrak eta gizarte segurantzarenak egunean ditudala dioten datuak eskatzeko, bakar-bakarrik prozedura honen eskakizunak betetzen direla egiaztatzeko, hori posible bada.
- Diru-laguntza zertarako eman den, horrexetarako erabiliko duela.
- Zuiako udalari eskatzen zaion informazio osagarri guztia emango diola.
- Udal gizarte zerbitzuetan galdetzeko baimena emateko konpromisoa hartzen duela, baldintzak betetzen direla edo egoera aldatu dela egiaztatze aldera.
- Diru-laguntza emateko kontuan hartu den edozein baldintza subjektibo zein objektibo aldatu bada, udalari jakinaraziko diola aldaketaren berri.

.....-(e)n, 20.....-(e)ko-aren-(e)an

Sinatuta:

*Adierazi X batez egiten dituzun adierazpenak.

(1) konpromiso hau ez da beharrezkoa izango, genero indarkeriaren biktima diren pertsonak

AYUNTAMIENTO DE ZUIA
MURGIA (ALAVA)



ZUIAKO UDALA
MURGIA (ARABA)

II. ERANSKINA - ERANTSITAKO AGIRIAK

- Eskatzailearen NANaren kopia.
- Erakunde eskudunak emandako ehuneko 65eko edo gehiagoko menpekotasun edo ezgaitasun egoeraren aitortpena edo mediku txostena eta laguntza pertsonala behar izatearen balorazioa, betiere, izapideak abian badira.
- Enpesakarekin edo zaintzailearekin ezarritako kontratuaren kopia, indarrean dagoena eta, gutxienez ere, diruz laguntzeko epearen zati bat hartzen duena.
- PFEZ aitortpena edo foru ogasunaren ziurtagiria, non PFEZ aitortpena egiteko derrigortasun eza egiaztatuko den (familia unitateko kide guztiena).
- Familia unitateko edozein kide laguntzako pentsioa jasotzekotan, horien ziurtagiria.
- Zerga eta gizarte segurantzarekiko betebeharrak egunean izatearen ziurtagiriak, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua indarrean sartu aurreko hilabete baino gutxiagoko antzinatasundunak, udalari horiek eskatzeko baimendu ezean.
- Kontu zenbakia eta bankuko kontuaren titulartasun ziurtagiria.
- Genero indarkeriaren bikitima izatearen ziurtagiria, Genero indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 23. artikuluan ezarritako edozein bide erabilita.

.....-(e)n, 20.....-(e)ko-aren-(e)an

Sinatuta:

Zuiako udalak jakinarazten du, Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamendua (EB), Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, eta Datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko 3/2018 Lege Organikoa betez, zuk emandako datu pertsonalak erakunde honen jabetzako datu fitxategian gordeko direla, eta pertsona edo erakunde ezberdinei zuzendutako diru-laguntzak kudeatzeko helburu bakarrarekin. Nahi izatekotan, ezagutu, zuzendu, ezabatu eta aurka egiteko eskubideak baliatu ahal dituzu, ondorengo helbidean: Udaletxe plaza, 1 - 01130 Murgia.

AYUNTAMIENTO DE ZUIA
MURGIA (ALAVA)



ZUIAKO UDALA
MURGIA (ARABA)

ZUIAKO FAMILIENTZAKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERA, COVID-19K ERAGINDAKO ALARMA EGOERAREN ONDORIOZKO KRISI SOZIAL ETA EKONOMIKO LARRIARI AURRE EGITEN LAGUNTZEKO.

.....jaunak/andreak,
..... NAN/AIZ duenak; COVID-19k eragindako alarma egoeraren ondoriozko krisi sozial eta ekonomiko larriari aurre egiten laguntzeko Zuiako familientzako laguntzen inguruan.

Jakinarazpenetarako datuak

Helbidea:.....

Posta Elektronikoa:.....

Telefonoa:.....

Jakinarazpenak honela bidaltzea eskatzen dut:

- Posta arruntez
- Posta elektronikoz

Goian adierazitako laguntza eskatzen du

.....-(e)n, 20.....-(e)ko-aren-(e)an

Sinatuta:

AYUNTAMIENTO DE ZUIA
MURGIA (ALAVA)



ZUIAKO UDALA
MURGIA (ARABA)

I. ERANSKINA - ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

.....jaunak/andreak,
..... NAN duenak bere izenean edo edo
IFZ duen ordezkatzuz; COVID-19k
eragindako alarma egoeraren ondoriozko krisi sozial eta ekonomiko larriari aurre egiten
laguntzeko Zuiako familientzako laguntzen inguruan.

ADIERAZPEN HAU EGITEN DU:

- Gutxienez 2020ko martxoaren 14aren aurreko bi urteetan Zuian erroldatuta dagoela.
- Familiako kideetako bat gutxienez ABEEE baten eraginpean egon dela eta egoera horrek bere horretan jarraitzen duela edo gutxienez bi hilabetez iraun duela.
- Deialdi honen oinarrietan jasotako gainerako baldintzak betetzen dituela.
- Gaurko egunez ez dagoela, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren artikulua araber, diru-laguntzen onuradun izatea galarazten duten ezein egoeratan.
- Zuiako udalari baimena ematen diodala dagozkion administrazio eskudunei zerga betebeharrak eta gizarte segurantzarenak egunean ditudala dioten datuak eskatzeko, bakar-bakarrik prozedura honen eskakizunak betetzen direla egiaztatzeko, hori posible bada.

.....-(e)n, 20.....-(e)ko-aren-(e)an

Sinatuta:

*Adierazi X batez egiten dituzun adierazpenak.

AYUNTAMIENTO DE ZUIA
MURGIA (ALAVA)



ZUIAKO UDALA
MURGIA (ARABA)

II. ERANSKINA - ERANTSITAKO AGIRIAK

- Eskatzailearen NANaren kopia.
- Eskatzailearen familia liburua.
- Langabezian edo ABEEE baten menpe egotearen egiaztagiria.
- Famili unitateko kide guztien 2020ko apiril, maiatz eta ekaineko diru sarrerren ziurtagiriak.
- Zerga eta gizarte segurantzarekiko betebeharrak egunean izatearen ziurtagiriak, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua indarrean sartu aurreko hilabete baino gutxiagoko antzinasundunak, udalari horiek eskatzeko baimendu ezean.
- Kontu zenbakia eta bankuko kontuaren titulartasun ziurtagiria.

*Adierazi X batez erantsitako agiriak.

Zuiako udalak jakinarazten du, Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamendua (EB), Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, eta Datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko 3/2018 Lege Organikoa betez, zuk emandako datu pertsonalak erakunde honen jabetzako datu fitxategian gordeko direla, eta pertsona edo erakunde ezberdinei zuzendutako diru-laguntzak kudeatzeko helburu bakarrekin. Nahi izatekotan, ezagutu, zuzendu, ezabatu eta aurka egiteko eskubideak baliatu ahal dituzu, ondorengo helbidean: Udaletxe plaza, 1 - 01130 Murgia.

AYUNTAMIENTO DE ZUIA
MURGIA (ALAVA)



ZUIAKO UDALA
MURGIA (ARABA)

NORBERAREN KONTURAKO LANGILE (AUTONOMOAK), ENPRESA ETA ELKARTEEI ZUZENDUTAKO LAGUNTZA ESKAERA; LAGUNTZA HAUEN HELBURUA DA COVIDEK ERAGINDAKO ALARMA EGOERAREN ONDORIOZ SORTUTAKO KRISI SOZIAL ETA EKONOMIKO LARRIA GAINDITZEA ZUIAN.

.....jaunak/andreak, NAN duenak, neure izenean (autonomoen kasuan) edo IFZ duen ordezkatuz; norberaren konturako langile, enpresa eta elkarteentzako laguntzaren bat eskatze aldera (laguntza hauen helburua da COVIDek eragindako alarma egoeraren ondorioz sortutako krisi sozial eta ekonomiko larria gainditzea Zuian).

Azaltzen dut, ondorengo dela saltokiaren edo zerbitzuak emateko gunearen helbidea:

.....

Jakinarazpenetarako datuak

Helbidea:.....

Posta elektronikoa:.....

Telefonoa:.....

Jakinarazpenak honela bidaltzea eskatzen dut:

- Posta arruntez
 Posta elektronikoz

ESKATZEN DEN EDO DIREN DIRU-LAGUNTZA(K):

- 1. mota:** egitura gastuetarako diru-laguntza:
- 2.A mota:** Diruzko laguntzak, jarduera baten titular diren autonomoei edo sei langile edo gehiago dituzten enpresa edo elkarteei, jarduera etenda badute.
- 2.B mota:** Diruzko laguntzak, jarduera baten titular diren autonomoei eta aurreko atalean jaso ez diren enpresa eta elkarteei, horien jarduera etenda egon bada.
- 2.C mota:** Diruzko laguntzak, beren jarduera funtsezkotzat jo izanagatik eten ez duten, baina 2019ko lehen seihilekoarekin alderatuz diru sarreretan ehuneko 30etik gorako murrizketa justifikatzen duten autonomo, enpresa eta elkarteei.
- 3. mota:** Aurrerakin itzulgarria.

.....-(e)n, 20.....-(e)ko-aren-(e)an.

Sinatuta:

*Markatu X batez jakinarazpenak egin edo laguntzak eskatzeko bidea.

AYUNTAMIENTO DE ZUIA
MURGIA (ALAVA)



ZUIAKO UDALA
MURGIA (ARABA)

I. ERANSKINA - ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

..... jaun/andreak, NAN
duenak, bere izenean, edo IFZ duen
..... ordezkatuz; norberaren konturako langile, enpresa
eta elkarreentzako laguntzen inguruan (laguntza hauen helburua da COVIDek eragindako
alarma egoeraren ondorioz sortutako krisi sozial eta ekonomiko larria gaitztea Zuian).

ADIERAZPEN HAU EGITEN DU:

- 1. Bere saltoki edo zerbitzuak emateko gune bakarra Zuian dagoela.
- 2. Enpresa izatekotan, ez duela oinarri hauetan ezarritako betekizunak betetzen ez dituzten enpresek ehuneko 25 edo gehiagoko partaidetza zuzena edo zeharkakoa.
- 3. Alarma Egoeraren ondorioz jarduera erabat eten bada, Alarma Egoera amaitu eta gehienez bi hilabeteko epearen buruan berrabiarazi duela edo berrabiarazteko konpromisoa hartzen duela.
- 4. Laguntza hauek eman eta, gutxienez, ondorengo sei hilabeteetan jarduerarekin jarraitzeko konpromisoa hartzen duela.
- 5. Deialdi honen oinarrietan jasotako gainerako baldintzak betetzen dituela.
- 6. 2.A motako laguntza eskatu bada:
 - COVID-19k eragindako Alarma Egoeraren ondorioz jarduera eten egin behar izan duela.
 - 6 langile edo gehiago dituela kontratatuta.
- 7. 2.B motako laguntza eskatu bada:
 - COVID-19k eragindako Alarma Egoeraren ondorioz jarduera eten egin behar izan duela.
 - Ez duela kontratatutako langilerik edo sei baino gutxiago dituela.
- 8. 2.C motako laguntza eskatu bada:
 - 2019ko lehen sei hilabetekoarekin alderatuta %30 murriztu direla bere diru sarrerak.
- 9. Gaurko egunez ez dagoela, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren artikulua araber, diru-laguntzen onuradun izatea galarazten duten ezein egoeratan.
- 10. Zuiako udalari baimena ematen diodala dagozkion administrazio eskudunei zerga betebeharrak eta gizarte segurantzaren egunean ditudala dioten datuak eskatzeko, bakar-bakarrik prozedura honen eskakizunak betetzen direla egiaztatzeko, hori posible bada.
- 11. Hala badagokio, Zuiako udalak eskatzen dionean adierazitakoa egiaztatuko duela.

.....-(e)n, 20.....-(e)ko-aren-(e)an

Sinatuta:

*Adierazi X batez egiten dituzun adierazpenak.

AYUNTAMIENTO DE ZUIA
MURGIA (ALAVA)ZUIAKO UDALA
MURGIA (ARABA)**II. ERANSKINA - ERANTSITAKO AGIRIAK****Autonomoen kasuan**

- Eskatzailearen NANaren kopia.
- 2020ko otsaileko autonomoen ordainagiriaren kopia.

Elkarteen kasuan

- Eraketa eskritura eta elkartearen estatutuak, dagokion erregistroan inskribatuta.
- Pertsona juridikoaren IFKren kopia.
- Ahalduaren NANaren kopia.
- Ahalordetze eskritura.

- Zerga eta gizarte segurantzarekiko betebeharrak egunean izatearen ziurtagiriak, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua indarrean sartu aurreko hilabete baino gutxiagoko antzinatasundunak, udalari horiek eskatzeko baimendu ezean.

- 2020ko martxoaren 14an alta egoeran zegoen langile taldearen batez bestekoari buruzko txostena, GSDNk emanda.

- Diru sarrerak 2019ko lehen seihilekoarekin alderatuz murriztu direla dioen ziurtagiria (2C motako laguntza eskatuz gero).

- Kontu zenbakia eta bankuko kontuaren titulartasun ziurtagiria.

.....-(e)n, 20.....-(e)ko-aren-(e)an

Sinatuta:

*Adierazi X batez erantsitako agiriak.

Zuiako udalak jakinarazten du, Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamendua (EB), Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, eta Datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko 3/2018 Lege Organikoa betez, zuk emandako datu pertsonalak erakunde honen jabetzako datu fitzategian gordeko direla, eta pertsona edo erakunde ezberdinei zuzendutako diru-laguntzak kudeatzeko helburu bakararekin. Nahi izatekotan, ezagutu, zuzendu, ezabatu eta aurka egiteko eskubideak baliatu ahal dituzu, ondorengo helbidean: Udaletxe plaza, 1 - 01130 Murgia.